

JARDUERA SAIKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA

- Argindarra ekoizteko instalazioak edo energia berriztagarriak argindar bihurtzeko hartze- eta eraldatze-instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-etik gorakoa eta 100 kW-ekoa edo baxuagoa baldin badute.
- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa edota elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW baino txikiagoa bada eta ekoizpenerako azalera ez bada 300 m²-tik gorakoa; hortik kanpo geratzen dira gainazalaren tratamendua, bernizatze-lana, pistola bidezko pintatze-lana edo halakoak egiten dituzten tailerrak, Jarduera sailkatuen lizentzien zerrendan baitaude sartuta.
- Jarduera sailkatuen lizentzien zerrendako 7. puntuan sartzen ez diren biltegiatze-, salerosketa- eta erakusketa-jarduerak eta -instalazioak.
- Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik beherako edukia dutenak; sailkapen honetatik kanpo utzita gasolindegia batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.
- Ibilgailuak zaintzeko lekuak.
- Zenbait zerbitzu-jardura: haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun-zentroak eta botikak, albaitaritza-klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegiak, masaje-etxeak eta hiltegi-zerbitzuak.
- Hotelak eta erresidentzia komunitarioak, edadetuen egoitzak, ostatuak eta halako etxeak.
- Jarduera sailkatuetarako aurretiazko lizentziaren menpe ez dauden ostalaritza-eta jatetxeestablezimenduak eta jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak ematen dituztenak.
- Jarduera sailkatuen lizentzien zerrendan sartu gabe dauden abeltzaintza-ustiategi txikiak eta etxeko eskortak.
- Eraldaketa-zentroak.
- Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irratierrepikagailuak eta telebista-errepikagailuak, satellite bidezko errepikagailuak, telefonía mugikorreko antenak eta oinarri-estazioak, irrati-telefonoko estazioak eta estazio irrati-telegrafokoak, irrati-igorgailuak, telebista-igorgailuak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.
- Instalazio osagarriak:
 - Galdara-gelak.
 - Airea girotzeko instalazioak.
 - Kamera hozkailuen instalazioak.
 - Erradio-diagnosi medikoa egiteko instalazioak; alegia, aplikatzekoa den erregelamenduaren arabera, diagnosi medikoak egiteko helburua daukaten X izpien ekipoak eta instalazioak.
- Errauste-laberik gabeko hilerri eta tanatorioak.
- Osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak, otsailaren 27ko 3/98 Legearen 55. artikulua xedatzen duenaren arabera eta 7/2012 Legearekin bat datorrena.